

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiak bere kultur aztarna indartu du Covid-19aren udan

Udako jardueraren balantzea oso positiboa izan da asistentziari eta segurtasunari dagokienez.

Covid-19ak markatutako udako jarduerak kulturak Donostian duen aztarna sendotu du, Donostiako hiriburuan ekainetik irailera bitartean egindako festibal eta jardueren eskaintzaren balantze arrakastatsuari esker.

Hala adierazi du hiriko alkate Eneko Goiak, Jazzaldiko, Hamabostaldiko eta Zinemaldiko hiru zuzendariekin batera Donostiako uda kulturalaren errepasoa egin duena.

Eneko Goiak adierazi duenez, Donostiak berriro erakutsi du “bere kultura-aztarna handia kulturaren sektoreak protagonismo handia izan duen uda atipikoan, eta eredu eta erreferente izan da bere ingurune osorako”.

Hiriko hiru festibal nagusietako ordezkariekin batera gaur egin duen udako kultura-denboraldiaren balantzean Goiak adierazi duenez, “harrotasunez esan dezakegu, konplexurik gabe, Donostia bere balioengatik nabarmendu dela kulturaren esparruan. Eta gure nahia da bide hori jarraitzea eta eta jarrera estrategikoa sendotzea”.

Joan den apirilaren 29an, Covid-19aren krisiaren ondorioz, hiriko kultura-eragile nagusiak bildu ziren sektorearen egoeraren ondorioak aztertzeko eta beharrezko segurtasun-neurrietara egokitutako kalitatezko programa eskaintzeko makinak prestatzeko. Harrezkero, kultura-sare osoa lanean aritu da, gaur, 5 hilabete geroago, programazioa berme guztiekin berreskuratzeko erabakia zuzena izan zela baieztatzeko.

Izan ere, ekitaldiak segurtasun handiz egin dira, inguruan gaixotasunaren agerraldirik egon gabe, eta esperientzia atsegina eta interesgarria izaten jarraitu dute.

“Hori guztia zuzendaritza-taldeen eta antolatzaileen, seriotasunaren, fidagarritasunaren eta antolaketaren adierazle argia da, eta, gainera, nabarmentzekoa da gizarteak egoera berezi horren aurrean izan duen erantzukizun eta errespetu eredugarria”, adierazi du alkateak.

Eragile ekonomikoa

Kultura ere eragile ekonomiko garrantzitsua da hiriarentzat, eta kultura-jardueraren aldeko apustua izan da egungo egoeran laguntza-politrikarrik onena. Donostia Kulturak bakarrik 1,4 milioi euro bideratu ditu udan sektore horretara, bai sorkuntzarako bai produkziarako. Bultzada ekonomiko handia izan da hainbat profesionalentzat, hala nola teknikarientzat, azafatentzat, argitzaileentzat, tramoarientzat, makillatzaileentzat, musikarientzat edo ekoizpen-arduradunentzat, besteak beste, eta ahalegin handia egin dute gainera gizarte osoak kulturaz berme guztiekin goza dezan.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Beste adibide bat Musika Hamabostaldia da; 525.000 euroko zuzeneko inbertsioa egin du, eta 101 arte-kontratu egin dira. Gainera, festibalarekin lan egin duten enpresei dagozkien beste 495 lan-kontratu aktibatu dira, 12.000 pertsona inguruk programazio zabala izan zezaten.

Eta askoz gehiago dira bisitari ugari izan dituzten kultura-guneak eta -jarduerak ere uda honetan, nahiz eta aurreko urteekiko jaitsiera logikoa izan, hala nola Tabakalera (100.000 bisitari uztailean eta abuztuan), San Telmo Museoa (18.000 bisitari ekainaren 2an ireki zirenetik) edo Aquariuma (89.000 bisita ekainetik irailera).

Nazioarteko ekitaldiak

Ekainaren 1ean hiriko liburutegiak eta museoak ireki zirenetik, antzokiek eta zinema-aretoek ere atek ireki zituzten, eta hainbat kultura-ekitaldi egin dira hainbat eremutan, eta guztiek erantzun handia izan dute. Baina erronka handiena udako nazioarteko hiru festibal handiekin iritsi zen, ezbairik gabe.

Jazzaldiak hasiera eman zuen, edizio bikain eta zehatz batekin alderdi guztietan. Miguel Martín zuzendariaren hitzetan, “edizio hau izan da, Covid protokoloarena baino gehiago, aforoena baino gehiago, arte-bikaintasunarena, eta musikariek eszenatokira igotzean sentitu zuten emozio biziari bakarrik egozten diot”. Izan ere, festibal horretan parte hartu zuten askorentzat, zuirgabetasun hilabeteak igaro ondoren jendearen aurrean jarduteko lehen aukera izan zen.

Abuztuan iritsi zen Musika Hamabostaldia, eta Patrick Alfayak, bere zuzendariak, honako hau nabarmendu du: “publikoaren interesekoa izan den eta maila artistiko handia izan duen festibala abiaraztea lortu dugu”. Alfayak gaineratu duenez, “kultura-ekitaldi hauek erakutsi dute segurtasun osoz egin daitezkeela jendearentzat eta interpreteentzat”.

Nazioarteko azken hitzordua duela egun gutxi amaitu zen, une oro bere espiritu eta emozioari eutsi dion edizio batekin. Donostiako Zinemaldiko zuzendariak adierazi nahi izan du festibalak publikoarekin egiten jarraitzeko bokazio argia zuela, eta nabarmendu duenez, “guretzat pelikula bat ikusteko lekurik onena zinema-areto bat da. festibal presentziala gara, eta guk presentziazko festibala egingo dugu edo ez dugu egingo”.

Kulturaren aldeko apustua

Donostiak kulturalki aktiboa eta bizia den plaza dela erakutsi du, eta Udalak apustu argia egiten jarraituko du industria honen alde, industria hori eragile ekonomiko garrantzitsua baita gainera tokiko sarearentzat. Hori dela eta, udako egutegian ohikoak diren hitzorduak edo eskaintzak ere hasiko dira berriro, hala nola Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea, Literaktum, Donostia Kulturako ikastaroak, Kultur Etxeen programazioa edo Kursaal Eszenaren eskaintza.